

*ko, jakitate haundiko gizona behar litaik e izan. Ez naiz ez soziologo, ez linguista, are gutiago soziolinguista! Herritik kanpo bizi izan naizelakotz ez naiz beti euskal kultur mugimenduan lehen lerroko militante izan.*

*Beraz, Euskal Konfederazio berriko kideek galdegin derautatelarik mintzaldi hunen egitea, lehenik uzkur egon naiz, gero onartu diet lekukotasun bat bezalako zerbait emanen derautazuela ene bizi denboran gertatuetaz, nola euskararen aldeko mugimendu soziala abiatu eta aintzinate den gaur egun arte, erranez berehala, ene irudiko, mugimendu orokorra izan dela euskal kultur mugimendua, barne zirela bai mintzaira —euskara— bai beste kultur alor guzietan, berrikitan bakarrik gaiak, galdeak bat bestetik berexi direla, bakotzak bere desberdintasuna eta garrantzia hartuz: mintzaira, erakaskuntza, komunikabideak, artea, ondarea... eta abar. Mugimendu hortako gertakari nagusiak aipatuko ditut, bat bestearen ondotik, kronologia segituz, analisirik gabe. Zuen artean historia hori jadanik ezagutzen dutenak baitira zenbait... barkatu.*

## EUSKALTZALEEN BILTZARRETIK EUSKAL KONFEDERAZIORA

**Mixel Oronoz**  
*Euskal Konfederazioa*

Mintzatuko naiz, beraz, so egile eta kultur mugimenduan partzuez xume bezala, eta, zendako ez, Baigorriar bezala, herri hortan baitira ene euskal erroak, hor xurgatu baitut euskal kultura, ez nakielarik oraino hitz hori bazela ere, ez eta zer erran nahi duen.

Hitzaldi hunen mamian sartu aitzin, hitz laburrez nahi nuke, Baigorri gisa, haur-gazte denborako kultur inguramena aipatu. Gizon bati esker da enetzat euskal kultura argitu, behin, Piarres Laffite (1903-1985) Baigorri sortua zen, aita, guarda, han bizi baitzen eta haren ezagutza egin nuen Uztaritzeko semenario ttipian, 1948an, grekera erakasle bezala. Egitarau ofizialetik kanpo, astean oren bat hartzen zuen —ebasten— guri euskara ta euskal kultura aipatzeko. Zorigaitzez, haur tzarrak ginen errespetu gutirekin adin hortan, axola guti ginuen sail hortaz, halere uste dut erein haziak egun batez uzta pollit bat eman duten.

Hari esker ikasi dut nor diren d'Abbadie d'Arrast hiru anaiak. Charles izana zen Baigorri Etxauz-eko jauregiaren jabea, baina gain gaintetik izana zen Antoine (1810-1897), gizon famatua, jakintsu, eremu berri miatzale, euskaltzale, abertzale eta pilotari, harek hasi zituen, 1853an, Urruñan, «Lore joko» deitu bertsu xapelketak. Baigorriko eskolan ginabiltzalarik gure josta lekua zen behereko pilota plaza, eta paretaren harri gorraileen erdian bazen kasko

kaskoan, harri beltz bat, hartan grabatuak ziren hitz labur hauek: «D'Abbadie d'Arrast hiru anaiez Baigorrik milesker 1857».

Lafitteri esker ikasi dut zer zen Euskaltzaindia, 1919an sortua. Iparraldetik barne ziren hastapenetik, Landerretche, Lhande eta Broussain. Geroago, 1963an, batzorde ospetsu hori hurbilagotik ezagutuko nuen, Jean Haritschelhar, herritarra, euskaltzain onartu izan zelarik Baigorri gertatu omenaldian.

Lafitteri esker ere parte hartzen ginuen Euskaltzaleen Biltzarrak, 1902an sortua, haurrentzat antolatzen zituen zoin gehiagotan, euskararen amodioa sustatzeko. Herri batetik besterat biltzen zen batzorde hori, urte guziz, egun ospetsua zen, meza, mintzaldi, bazkari, kantu. Hala jin ziren Baigorriat 1948an denbora berean omenaldi eder bat egiten zutela Bettiri Dibarrart (1838-1919) herriko xantre eta kobleriari.

Bi gizon, A.d'Abbadie d'Arrast, P. Lafitte, bi batzorde, Euskaltzaindia, Euskaltzaleen Biltzarra, urrun urrun ene bizian, kontzientzia zolan edo ene kontzientzia ilur-argi eremuan, aspaldiko denboretan, dir diratzen duten lau izarak.

(Mintzaldi hau irakurtze aitzin ikus lehen eranskina: Boterearen bideak Frantzia).

## EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDUA IPARRALDEAN

1951-1-2

Berexten dutan lehenbiziko data, beraz, 1951.I.II, Deixonne jaunaren legea agertuzelarik.

Comité Bertheau deitu taldeak abiatu zituen ikerketak 1949tik Jean Errecart jaunak parte hartu zuen lan horietan eta Jacques de Menditte senadorearen aitzinean mintzaldi bat egin zuen herriko mintzaireren alde, horiek biak Iparraldeko politika gizonak. Bainan lehen proiektua berriz eskuratu zuten eta ahuldu, epeldu, hola pasatu zen berriz deputatuen aitzinean eta haiek onartu zuten. Halere, zen bezala, lege hori garrantzitsua izan zen, ordu arte bortizki debekatua zitzaukulakotz euskara eskolan.

Lege hortan, 2. artikulua guziz inportantea da emaiten baitiote errienterri herriko mintzaireren baliatzeko baimena ama-eskoletan eta lehen mailako eskoletan noiz eta zenbait abantail aterako duten beren erakaskuntzarentzat. Aldiz herriko mintzaireren idazteari eta irakurtzeari astean oren bat

---

**«d'Abbadie d'Arrast hiru anaiak. Charles izana zen Baigorri Etxauz-eko jauregiaren jabea, bainan gain ginetik izana zen Antoine (1810-1897), gizon famatua, jakintsu, eremu berri mintzale, euskaltzale, abertzale eta pilotari, harek hasi zituen, 1853an, Urruñan, "Lore joko" deitu bertsu xapelketak»**

**«Lehen proiektua berriz eskuratu zuten eta ahuldu, epeldu, hola pasatu zen berriz deputatuen aintzinean eta haien onartu zuten. Halere, zen bezala, lege hori garrantzitsua izan zen, ordu arte bortizki debekatua zitzauk-lakotz euskara eskolan»**

baizik utzia zaiote.

Ez ditut lege horren hamereka artikulak aztertuko, aipatzen du ene herriko mintzaireren lekua lizeoetan, erakasle-eskoletan, unibertsitateetan, diplomak eta abar. Bainan, ez da zinez erraiten ahal emana zaiola herriko mintzairari egiazki merezi duen lekua (ikus 2. eranskina).

1959-8-27/28

Handik landa, 8 urteren buruan, Euskararen erakaskuntzari buruz bi egun izan ziren, Pedagogi egunak, Baionako Erakuts tokian, 1959ko abostuaren 27 eta 28an. Ihardunaldi horren kudeatzaileak ziren Euskaltzaleen Biltzarra eta bertze talde bat Eskual Kulturaren alde. Hor ziren ber ehun bat lagun Hezkuntza Nazionalako ikuskatzaile, erriet, erakasle eta euskaltzale. Bururatu ziren Ikas batasuna sortuz, Baigorriar notarioak eta departamenduko kontseilariak, Jean Etcheverry-Ainchartek batasun horren araudia landu zuen. Zen bezala onartua izan zen eta ondotik hor zirenak aurkeztu zituzten beren nahiak: Ikas izanen zen handik goiti euskararen erakaskuntzari buruz laguntza hoberena, erakasleak sustengatuz, abiadura berriak azkartuz, euskararen erakaskuntzak behar zituen tresnak moldatuz eta eskainiz. Zuzendari lehena izan zen Louis Dassance, haren inguruan ziren, besteak beste, Piarres Lafitte, Jean Ithurriague, Madeleine de Jaureguiberry eta Jeanne Marie Malharin andreak, Michel Labeguerie, biziki ezagutuak zirenak gure gazte denboran, eta Sallaberry, Narbaitz, Etchandy eskola publikoko errieta.

Denbora berean, Herriko mintzaireren defentsarako kontseilu nazionalak —barne ziren bretoinak, okzitaniarrak, euskaldunak (Ikas) eta Herriko kulturen alde mugimendu laikoak— gutun bat igortzen zuen Frantziako departamenduko kontseilari bakotxari galdeginez egin ahalak egin zitzaizkan herri ondarearen begiratzeke, bereziki herriko mintzaira.

Erantzun gisa, Pabeko kontseiluak orokorki onartu zuen Jean Etcheverry-Ainchartek presentatu testo bat baizik eta errotik atxikiak zirela biarnesbaskoin eta euskaldun ondareari eta kultur horien aberastasuneri.

Hortaratu eta, eta aitzinago joan gabe gure gaian, mintzaira-kultura, nahi nituzke historio modernoan hiru data finkatu, Iparraldeko nortasuna simbolikoki egiten dutelakotz:

-1963an, Enbata alderdiak bere alderdi politikoa Itsasun zabaldu zuen.

-1969an, Argitxu Nobliak lehenbiziko ikastola Arrangoitzen ideki zuen.

-1979an, Juanito Danjou, André Darraidou, Jean-Roch Guiresse, Jean Louis Harignordoquy eta Patxi Nobliak, Hemen-Herrikoa batzordea Euskal Herriko ekonomiari buruz Baionan sortu zuten.

Data horiek ere ikusterat emaiten dute, mintzaira-kulturaren ondotik, Iparraldeak nahi dituela eskuetan hartu, hemendik goiti, politika, hezkuntza eta ekonomia. Datak berek emaiten dute bide hastapenean girela, egun.

Parentesi hunen ondotik berriz gure gaiari lotzen naiz.

Ondoko urteetan zer ikusten dugu?

Estadoak indar gutti egiten duela. Hogei bat lege proiektu proposatuak izan direla, segidarik gabe. Estadoaren administrazioak sekulako pisua baduela, Telebistak gaitzeko desmasiak egiten dituela, modelo bera denetan barreatuz. Euskaldunak modelo horri buruz badoatzila edo ahalgez edo alferkeriaz.

Beharrik badira amor eman nahi ez zutenak. Nekatu gabe, desmartxaka ministeritzari buruz ari direnak. Zonbat eta zonbat eskakizun! Beharrik badira kulturaren salbatzeko ari direnak. Nola talde berriak sortu ziren, adibidez 1969an, ikastola, hezkuntzari buruz, 1973an lauburu, ondareaz arduratzeko. Nola hainbeste dantza, kantu, antzerki talde, anitz herrietan.

Indar, entsegu horiei esker egun guzietako gudukatze hortan, euskaldunen kontzientzia emeki emeki argitzen ari da eta azkartzen. Ideia berri batzu barreatzen ari dira, nola munduko, Europako nazioek ezagutzen dituztela orai populu eta kultur guzieren zuzenbideak, eta Frantziak bere espantua baldin baditu giza eskubideak Iraultzaren bidez oinarritu dituela, zuzenbide horiek anitz denboraz ostikatu dituela eta behar dituela kalteak ordaindu.

Gogoeta horien bilduma batzu igorriak izan ziren 1970ean lehen minixtroari, 1977an Iparraldeko auzapez guzietari, eta 1979an atera zuten euskal kultur karta baten proiektua: 20 urte Ikas abiatu zenetik!

1981-3-14

Hainbestenarekin, 1981ean gertatu ziren Frantziako lehendakariaren hauteskundeak eta euskaldunek entzun zituzten kanpaina denboran hitz mirresgarri batzu, denak harrituak baikinauden, mirakulu bat gertatuko zenetz!

«Zer mesprexua! dio boz batek. Ez da nolana itzaltzen mendeak iraun

---

**«Lege hortan, 2. artikulua guziz inportantea da emaiten baitiote errienterri herriko mintzairaren baliatzeko baimena ama-eskoletan eta lehen mailako eskoletan»**

**«Ikas izanen zen handik  
goiti euskararen erakas-  
kuntzari buruz laguntza  
hoberena, erakasleak  
sustengatuz, abiadura  
berriak azkartuz,  
euskararen erakaskun-  
tzak behar zituen  
tresnak moldatuz eta  
eskainiz»**

duen zapaldura, ezin geldiarazizko lana, erreposki beti aitzina doana, kul- tura apalduz, zangopilatuz, debekatuz, populu baten nortasuna ukatzeko. Altxatu dira sozialistak, lehena Emile Masson, dio boz berak, gizonaren aldeko deramaten gudua oihukatzeko, oihukatzeko alienazio hori errefusa- tzen zutela... Sozialistentzat argi da populu bat bere barne min-minean kol- patzen duzula haren mintzaira eta kultura hunkitzen baduzu. Gora ezar- tzen dugu bertzela izaiteko eskubidea. Desohoragarri da Frantziarentzat bere ontasunen baztertzea, Europako azken erresuma izaita Frantzia bera osatzen duten lurraldeei beren kultur zuzenbideen errefusatzeari, berak izen- petu dituelarik nazio arteko hitzarmenak. Desohoragarri da eman hitza ez errespetatzea. Zer da ba karta hori egiazko ahalik gabe, bozkatze denbo- rako jostagailu bat bezala. Ele onak baino gehiago ekintzak behar dira.

Ordu da, dio boz berak, orai erraitea, eskualdeek berek deliberatuko dutela beren kultur balore berezietan emanen duten inportantzia. Ordu da orai Fran- tziako hizkuntzen eta kulturen estatus bat, legez ezagutua izan dadin. Ordu da orai eskolako atekak idekiak izan diten, herrialdeko irrati eta telebista ba- tzorde batzuek antolatutako izan diten mintzaira horien zabaltzeko, merezi duten eremua onartua izan dadin bizi publikoan».

Prediku hau emana izan da Lorient hirian, 1981eko martxoaren 14ean. Pre- dikaria zen François Mitterrand jauna.

Berak agertu zituen 110 proposamen Frantziarentzat, 54a hau zen: Euskal Herriko departamendua egina izanen da.

Bestalde alderdi sozialistak bi lege proposamen aurkeztu zituen: bata Eus- kal Herriko departamendua (2224 zk.), bestea, Frantziako populuen min- tzaira eta kulturari buruz (2269 zk.).

Holako ele xoragarriak entzunik bozkariotan sartu ziren kultur taldeak. Jean Haritschelhar eta Manex Goyhenetche, Euskaltzaindiaren eta Ikas-en or- dezkar bezala, elgarretaratu ziren eta deliberatu euskal kulturaz ardura- tzen ziren taldeak behar zutela bildu. Anartean, François Mitterrand lehen- dakari hautatua izan zen (1981-5-10) eta ezkertiarak nausitu ziren Parla- mentu berrian. Parada ederra zen hainbeste agintza ederren ondotik. Bildu ziren beraz Euskara eta euskal kulturaren estatusaren aldeko lehen ihardu- naldiak edo «*Les premières assises pour un statut de la langue et de la culture basques*».

1981-4-4

Lehen ihardunaldietan 25 euskal elkarte bildu ziren agiri baten inguruan, hortan emanak ziren Iparraldeko galde nagusiak: ikastola, gau eskola, ibil-

tariak, unibertsitateko diploma, irrati, telebista, kultur zentro, are, ondare. Ihardunaldi horiek leku berri bat izan behar ziren, elgarretartzeko, denen ikusmoldeen kurutzatzeko, egoeraren funski ikertzeko eta analizatzeko eta dena behar orduen batetartzeko. Aldatze orokor bati buruz jokatzeko behar ziren hiru baldintza: alde batetik estruktura berri bat, herrikoia, deszentralizatua; gero lege berri batzu, Euskal Herriari estadoarekin, neurri berean, mintzatzeko dretxo emanen ziotenak; azkenik, gogo bihotzak, pentsamoldeak behar zirela kanbiatu, bai boterea duten partetik, bai boterepean diren partetik; ezin ditakela segitu ez ikusiarena eginez, batzuek eta besteak euskal kulturaren alde alegia eta ari direla, «*kultura bizitzera utz dezagun*» erraiten dutenek gogoan dutelarik «*kultura hiltzerat utz dezagun*», hemendik goiti beharko dela edo elgarrekin lanean arizan edo elgarren kontra borrokan. Proiektu horren bultzatzaile suharrenetan Jakes Abeberry, Erramun Baxok, Ramuntxo Camblong, Jean-Louis Harignordoquy, Jean Haritschelhar eta Klaudio Harluxet.

1982-4-26

Ondoko urtean Pirineo Atlantiko departamenduko prefetak gaztiazten zuen Gaston Deferre, Barneko eta dezentralizazioeko minixtroak talde bat erabakitzen zuela Euskal Herriko problemetaz arduratzeko, Mission Ravail izenekoa. Badirudi Ravail jaunak bere lana seriozki egin zuela eta, funtsean, euskaldunen alde. Bainan zonbait ilabeteren buruan, azaroan, misio hori bukatu zelarik, ez zen ez Euskal departamendurik, ez Garapen Kontseilurik, ez kultur zentrorik. Proiektu horien kontra agertu baitziren departamenduko kontseilari eskuindarrak (horietan barne, bixtan da, Euskal Herrikoak) eta kontseilari Biarnesak, alde batetik, eta beste aldetik, Frantziako lehendakari berriak aho batez mintzo baita lehendakari gaia eta beste aho batez lehendakari egina.

Halere, bere borondate ona, zerbait gisaz, erakutsi nahi izan zuen estadoak eta negoziaketak kultur zentro bati buruz kultur taldeekin berriz hasi ziren.

1984-4-4

1984ean kultur elkarteak federazio bat sortu zuten, Pizkundea, (Gehexan Lantzirik atxeman zuen izen hori), elgarrekin hartu erabakien akulatzeke. Azkenean ardietsi zuten Euskal Herriko Kultur Etxearen eraikitzea (zonbaitek nahiago zuten Euskal Kultur Etxea izendatu) Pierre-Luc Bonnin Akitaniako funtzionario bat anarteko zuzendari ezarri zuten eta azaroan lehen kideak hautatuak izan ziren.

1985eko ekainaren 1ean Dominique Burucoa (ez hainbertzetaraino euskalduna, izena salbu) zuzendari izendatua izan zen eta kultur egitasmo bat

---

**«Indar, entsegu horiei  
esker egun guzietako  
gudukatze hortan,  
euskaldunen kontzien-  
tzia emeki emeki  
argitzen ari da eta  
azkartzen»**

**«1981ean gertatu ziren Frantziako lehendakariaren hauteskundeak eta euskaldunek entzun zituzten kanpaina denboran hitz miresgarri batzu, denak harrituak baiginauden, mirakulu bat gertatuko zenetz!»**

aurkeztu zuen, hiru xede premiatsurekin: koro kantua, literatura eta edergintza, eginbide nagusizat hartuz euskal kulturaren bultzatzea eta agerkitzumen hedatzea.

Nork dute, xuxen, Euskal Herriko Kultur Etxea kudeatzen? Estadoak (Kultur minixteritza), Akitania lurraldea, Pirineo-Atlantika departamendua eta Baionako hiria, ez zen Euskal Herriko erakunderik barne zenik.

Euskal taldeen izenean Pizkundeak lan taldeetan parte hartzen du aholkulari kide bezala. Euskal Herriko Kultur Etxearen presidentea euskal kultur alorretik heldu bada, Administrazio kontseiluan 15 lagunetarik 12 estadoaren, Akitania lurraldearen, Kontseilu orokorraren eta Baiona hiriaren ordezkariak dira. Beraz, bazterrak ongi zainduak dira. Bestalde, kultur minixteritzako kultur egitasmoa ez da batere euskaldunen kultur egitasmoa. Gaietik, diru laguntzak heldu dira %60 Parisetik, Bordenetik, Pabetik eta Baionatik, %7 laguntza pribatuetarik eta %33 zentroak bere ekintzen irabazietarik. Hilabeteak joan, hilabeteak jin, kiskun kaskun egin zirenak eginak, ezin uka halere ez zirela euskaldunen gustukoak, eta mekanika kraskatu zen 1988an biltzar nagusian, ekainaren 6an.

Egun hartan Pizkundeak zabaldu zituen arrangura andana bat: diru laguntzetan %75 baliatzen zirela frantses kulturarentzat, edo kanpotik ekarri erakusketa batzuen antolatzeke; edo euskal erakusketa ospetsu batzuetan; bestalde, Administrazio kontseiluak ez zuen onartu M. Goyhenetche izendatua izan zedin euskal literaturaz permanente gisa arduratzeko; eta harri-garri zena biltzar nagusiak ez ziren azken bi urte hauetan biltzen, holako manera arrunt lege kontrakoa baita; gainetik, euskal kultur taldeak ez ziren kasik gehiago agertzen Norabide kontseiluan edo Conseil d'orientation delakoan. Dena den, egun hartako txostenak errefusatuak izan ziren eta aterabiderik ezin zen atxeman: Euskal Herriko Kultur Etxearen azken korrokak ziren.

Anartean, gatazka horien guzieren artetik, euskal mugimendua zatitu zen, zorbaitentzat ezin onartuak baitziren hainbeste hizketa, eztabaida eta hautsi-mautsi, Arroka, Seaska eta AEK baztertu ziren. Gelditu ginen beraz departamendurik gabe, lege berririk gabe, kultur zentrorik gabe, eta gure indarrak ahulduak, gure batasuna desegina.

*1987-1988*

Halere gauzak ez zituen hortan utzi Pizkundeak eta botere publikoei galdatu zien denbora laburrez zer bait proposamen berri egin zezaten. Deus ez baitzen agertu, harremanen bidea hartu zuen Pizkundeak eta dossier bat igorri

Pariserat, Kultur Minixteritzari. 1986az geroztik gure egoera gaizkondua zen kasik eremu guztietan. Pizkundea 1987ko otsailaren 27ko bilkuran bere gain hartu zuen eztabaida zabal baten antolatzea euskal kulturaren geroari buruz. Alor huntan lan egiten zuten guziak gomituak ziren beren gogoe-tak adieraz zitzazten, 1982ko txostenaren berritzeko. Huna zoin ziren biga-ren ihardunaldi horien helburuak:

-ikus zertan diren kultur ekintzak

-finka helburu batzu gaurko gizarte eta egoera politikoaren arabera

-jarraitziko elkarlan baten helbideak antola, elkarte bakoitzaren xedeak errespetatuz

Lantaldeen txostenak zabaldu ziren 1987an, abenduaren 5ean eta gauza be-rria zen orduan kultur alor bakoitzarentzat Europako parlamentuaren era-baki berriak aipatzen zirela (1987-10-30). Gaiak ziren: kultur eskubideak; euskal erakundeak; ikaskuntza; euskararen erabilera; komunikabideak; ani-mazioa eta sortzailetasuna; herri ontasunak eta ingurunea; euskaldungoaren batasuna. «Giza eskubideen herria» izanik ere, frantses estadoak herrien es-kubideak ez ditu onartzen, ondorioz kultura ezberdinak legez kanpo dau-de, gure nortasuna behar dugu beraz Europa mailan eta nazio arteko bata-sunek hartu erabakien gainean oinarritu.

1988-4-14/23

Hainbertzenarekin EKBk Bateginik kanpaina abiatu zuen. Ezagutzen du-zue. Euskarari buruz egina zen. Helburuak ziren 600.000 sinadura eta mi-liar bat zentima biltzea. Karia hortarat elgarretaratu zen euskal kultur mu-gimendua osoki, kanpaina horren bultzazale ziren Seaska, UEU, AEK eta Pizkundera.

1989

1989an gertakari nagusi zombait izan ziren. Martxoaren 12 eta 19an izan zi-ren herri hauteskundeak eta abertzale alderdiek emendatze polita ukan zu-ten. Handik landa eta estakuru hortan apirilaren 14an, Hazparnen, AEK, Seaska eta Pizkundera dei latz bat entzunerazten dute: denak gomit gira maiatzaren 1ean Baionako Komerzialdegian forum zabal batetarat. Eta bat batean jakiten dugu nola maiatzaren 12an Pizkundera galdatua den Kultur minixteritzarat eta 16an Seaska Hezkuntza nazionalaren minixteritzarat.

Dena den, Baionako forumean deliberatua izan zen manifestaldia, Deiadar izenekoa (Koldo Ameztoui-ek prentsatu izena) egin zen. Sekulan ez bezalako

---

**«Jean Haritschelhar eta Manex Goyhenetche, Euskaltzaindiaren eta Ikas-en ordezkari bezala, elgarretaratu ziren eta deliberatu euskal kulturaz ardura-tzen ziren taldeak behar zutela bildu»**



**«Lehen ihardunaldietan  
25 euskal elkarte bildu  
ziren agiri baten ingu-  
ruan, hortan emanak  
ziren Iparraldeko galde  
nagusiak: ikastola, gau  
eskola, ibiltariak,  
unibertsitateko diplo-  
ma, irrati, telebista,  
kultur zentro, are,  
ondare»**

ostea elgarretaratu zen maiatzaren 27an Baionan. «Euskaldunen kultur eskubideen alde» eta sekulan ikusi ez zena, lehen lerroan 30 bat auzapez eta beste hainbeste herriko kontseilari. Huna zer zen egun hartako AEK, Pizkundera eta Seaskak izenpetu zuten deia:

*Euskara eta euskal kultura gain behera doatzilarik, botere publikoek deus ez dute egin nahi. Beraz, euskal kultur mugimendu osoari da ihardokitzea. Herritar guziak deitzen ditugu, zuti gaitzezen injustizia horren geldiarazteko eta Euskaldunen eskubideak adierazteko gure kultura eta nortasunaren alde.*

*.Eskubide dugu euskarazko irakaskuntzaren finkatzeko, hitzarmen iraunkor bat sinatuz Ikastolen Federakuntzaren eta Hezkuntz Ministeritzaren artean.*

*.Eskubide dugu euskal erakasleentzat formakuntza egokiaren izaitzeko, gai izan daitezen lehen eta bigarren mailako eredu guzietan irakasteko, diploma ofizialekin.*

*.Eskubide dugu euskarak jasan dituen makurren ordainketaren ardiesteko, gau eskola eta moldakuntza jarraikiaren bidez, AEK elkarteari berreuskalduntze lanean bermatzeko eta indartzeko ahalak emanez, finantzamendu publikoa segurtatuz.*

*.Eskubide dugu gure kultura bereziaren goratzeko (bertsularitza, antzerki, kantu, dantza eta beste), diru laguntza ardietsiz, euskal kultur etxe, irrati, telebista eta aldizkarietzat.*

*Gobernu ala Lekuko Erakunde, botere publikoen gain da egitura egokien antolatzea, 1990eko finantza legean eta buxetetan.*

*Baiona, 1989-05-01  
AEK, Pizkundera, Seaska*

Segidan, ekainaren 30ean, Pierre Joxe, Barneko minixtroak buruz buru egi-  
ten du Kanbon Euskal Herriko auzapezekin eta jakinarazten du bere bai-  
mena emaiten duela euskal erakunde bati estadoaren diru laguntza bate-  
kin, hautetsiek berek batzorde bat antolatzen badute beren diru laguntza-  
ren ekartzeko. Eta uztailearen 11n Kultur minixteritzak bere baimena emai-  
ten du Euskal Kultur Erakunde baten eraikitzeko.

Bainan ez ginen bururat helduak: lanak izan ziren lehenik nork parte har-  
tuko zuen Administrazio Kontseiluan, gero herrien batzordearen xutik emai-

teko, ordu arte ez baitziren Euskal Herriko auzapezak euskal kulturaren alde agertu. Bildu ziren hiruzpalau aldiz bainan hautetsiak ez hain bero. Azkenean, gaineko botereak doi bat lagundurik, uste dut 158 Iparraldeko herrietarik 123 beren baimena eman zuten, Baiona, Angelu eta Miarritze barne, ez baita guti. Herrien sindikata ofizialki sortu zen 1990an ekainaren 30ean eta Euskal Kultur Erakundeak egin zuen Uztaritzen, azaroaren 4an, ospetsuki, bere etxe-sartzea (sortzea izan zen apirilaren 7an).

Gauza ezinago harrigarria zen lehen aldikotz herriek onartzen baitzuten euskal kulturaren ofizialki laguntzea.

1992-5-30

Nahiz Euskal Kultur Erakundeari, araudiaren arabera, galdegina zaion parte hartzea ere euskararen aitzinamenduan, euskararen aldeko mugimendua ez da hortan gelditu.

Kanpaina berri bat antolatu behar izan zen, beraz, «Zuzenbidea Euskaldunentzat» deiaren sustengatzeko, elkarte hauek gomitatuturik: Seaska, Euskal Irratiak, AEK, EHE eta Pizkundea.

1989ko kanpainak ondorio onak ukan zituen bereziki hautetsien sustengua-rengatik: Euskal Kultur Erakundea, Seaskaren lehen hitzarmena eta euskal diplomak. Aldi huntan botere publikoak bermarazi behar ziren, beste urrats bat egin zezaten euskalgintzaren alde; euskal kulturak behar dituen egiturak eta ahalak antola ditzaten: ikastolak, euskal iratiak, gau eskolak, Euskaltzaindia, bide seinaleak, euskal buxeta. Kanpaina hori izan zen Deiadar-2 (2. eranskina)

Gehiago dena, kanpaina denboran bi gertakari beltz jakin ziren biak irrisku-garriak euskaltasunarentzat: 1-Parisen Konstituzioa aldatu zuten Legebiltzarrean, frantsesaren alde, baizik eta Errepublikaren hizkuntza dela. Herri hizkuntzak ez ziren aipatzen. Emendakin hunekin euskararen ofizialtasuna orai uka dezakete. 2-Strasburgon Europako Kontseiluan 25 estadoetarik, hiruk eskatzen dute Herri hizkuntzen eurokarta: Frantziak, Greziak eta Turkiak. Ezin onartuzko jokabidea: «Giza eskubideen herriak» blokatzen du 35 herri hizkuntzen onetan liteken lege nagusia. Manifestaldia egin zen Baionan, 1992an, maiatzaren 30ean

1994-6-25

Beren lana segitzen dute Deiadar 2 manifestaldia antolatu duten taldeek (kudeatzaletan Edurne Alegria, Jakes Bortairu, Aines Dufau, Emilio Lopez) eta deiberri bat entzunarazten dute ekainaren 25ean. Oharpen bat, hemen

---

**«Badirudi Ravail jaunak bere lana serio-ski egin zuela eta, funtsean, euskaldunen alde. Bainan zombait hilabeteren buruan, azaroan, misio hori bukatu zelarik, ez zen ez Euskal departamendurik, ez Garapen Kontseilurik, ez kultur zentrorik»**

**«1984an kultur elkar-  
teak federazio bat sortu  
zuten, Pizkundera,  
(Gehexan Lantzirik  
atxeman zuen izen hori),  
elgarrekin hartu eraba-  
kien akulatze»**

testoak dio: *«Deiadar kolektibo partaideek euskararen ihardunaldiak antolatzeke deliberoa hartu dute, heldu den ekainaren 25ean larunbatarekin Baionako IUTn (Institut Universitaire Technologique)... eta abar».* Deiadar, manifestaldi baten izena, «kolektibo» baten izena bilakatzen da eta kolektibo horrek «ihardunaldia» deliberatzen ditu. 3. ihardunaldiak?

Zoin dira helburuak? Ipar Euskal Herrian euskarak premiazkoak dituen oinarrizko neurrien zerrenda denen artean finkatzea; euskararen defentsan ari diren elkarte guzien koordinazio gune iraunkorra sortzea. Bost lan talde ateratzen dira.

Eta ondoko urrian Deiadarrek aurkezten du «Euskararen agiria-Berehalako 40 neurri eta gomendio» zazpi zatitan emanak direnak: euskara familiar; administrazioa eta legeria; erakaskuntza; helduen euskalduntze alfabetatzea; unibertsitatea; komunikabideak; kultur gintza.

1995-6-17

Bainan Euskal Kultur Erakundera balinbada alde batetik, kultur taldeen aldetik gauzak ez dira hain argi. Egunkarian irakur zitezken gogoeta zorbait «Pizkundera hila da», Txomin Heguyk izenpetua eta segidan «Pizkundera hila da ala bizi?» Erramun Baxokek izenpetua. Zorbaiten arabera, hementik goiti Pizkunderak egiten zuen lana Euskal Kultur Erakundeak joanen du. Pizkunderak eta Deiadarrek behar dute segitu beren ofizioa?

Martxoaren 25ean bilkura berezi bat galdegina da. Egia da gauzak hobeki doazala euskararen alorrean denen negoziaketa eta ekintzen bidez!

- Euskal Kultur Erakundeak 5. egitaraua abiatu du
- Euskaltzaindiak onarmena ardietsi du
- Unibertsitatean euskal diplomak prestatzen dira
- Seaska egoera berrian sartua da hitzarmenekin
- Ikasgela elebidunak aitzina doaz, publikoan bai pribatuan
- Elkarte eta federazio batzuek diru laguntzak ardietsi dituzte
- Euskara sartzan ari da bide seinaleetan eta beste

Bainan ardietsi ditugunak bigarren mailako gauzak dira eta ez dute euskararen jarraipena segurtatzen. Urrats inportanteenak blokatuak dira:

- Euskararen ofizialtasuna ukatzen daukute konstituzioaren izenean
- Herri hizkuntzen Eurolegeak ez dituzte onartu nahi
- Lurraldetasuna ukatzen daukute hizkuntzan eta administrazioan
- Eskoletan 100 haurretarik 80ek ez dute euskararik entzuten

- Hitzarmenak dilindan daude: AEK, Ikas, Kultur etxeak...
- Irratien negoziaketak terrenta luze batean sartuak dira
- Iparraldeko unibertsitate autonomoa noizko? eta beste

Bestalde, zergatik bi federazio helburu berekin, Pizkundea eta Deiadar? Eztabaida baten ondotik ideia nagusi bat agertzen da: euskarak denak biltzen gaituelakotz badugu euskal konfederakuntza baten beharra, elkarte guziak bilduko dituen euskarari lehentasuna emanez eta «Euskararen agiria» oinarritzat hartuz. «Euskal Konfederazio» berriaren biltzar nagusia Kanbon ospatua izan da ekainaren 17an. Araudia, administrazio kontseilua, bulegoa eta bost lan talde eraikiak izan dira ekainaren 28an:

- 1.-Komunikabide euskaldunen arrangurak eta Euskal Herrian jarriak diren irradi, telebista, prensa erdaldunen bete beharrak ikertzea
- 2.-Kanpoko harremanak: Konfederazioaren osatzea eta elkarten behar orduak
- 3.-Euskara bizi publikoan eta legeriaren hobekuntza
- 4.-Erakaskuntza: unibertsitatea; erakaskuntzaren hiru sareak: publikoa, pribatua, ikastola, helduen erakaskuntza (AEK)
- 5.-Kulturagintza (kirolak, artea, ondarea)

Hortan geldi nintaike, erran behar nituenak erran baititut. Halere, nola Baigorritik hasi bainaiz, aipatuz ene kontzientzia ilun-argiko lau izarak (d'Abbadie d'Arrast, Lafitte, Euskaltzaindia eta Euskaltzaleen Biltzarra) azken prediku gisa, pastorala batean bezala, hiru etsenplu eman nahi nuzke euskararen egoeraz. Ez dute, bixtan da, soziologoek egiten dituzten inkestek balio... nor daki? Halere, euskararen aldeko mugimendu sozialarekin ez duten ez zerbait ikusteko...

-Iaz, Baigorri liburu bat agertu da Baigorri herriaren historia aipu duena. Piarres Xarritonen arrangura eta erasia zen erdaraz idatzia zela. Dakitanaz, idazleak ez du bakarrik frantsesez idatzi alferkeriaz, baina 1400 biztanle den herri batean 10ek erosiko zutela eta 5ek irakurtuko zituztela euskaraz idatzi 392 orrialdeak. Norendako duzun mezua eta harek ulertzeko gisan hobe dela, ez? Halere erranen dut Herria astekariak badituela Baigorri ehun bat harpidedun, kopuru eder bat, Iparraldean.

-Preseski, Herria kasetan hortan, uztailearen 13an, duela hamar bat egun, Baigorriko berrietan agertu lerro hauek:

### **Baigorriar nahi bainan ez euskaldun**

*Berri onak bezala txarrak ere heldu direnean, eginbide dugu kondatzea: Herri gotorrenetan kasik bakarra da BAIGORRI «Ikas-Bi»k proposatzen duen*

---

**«Gatazka horien guzien artetik, euskal mugimendua zatitu zen, zombaitentzat ezin onartuak baitziren hainbeste hizketa, eztabaida eta hautsimautsi, Arroka, Seaska eta AEK baztertu ziren. Gelditu ginen beraz departamendurik gabe, lege berririk gabe, kultur zentrorik gabe, eta gure indarrak ahulduak, gure batasuna desegina»**

---

**«Hainbertzenarekin  
EKBk Bateginik kanpai-  
na abiatu zuen. Hel-  
buruak ziren 600.000  
sinadura eta miliar bat  
zentima biltzea. Karia  
hortarat elgarretaratu  
zen euskal kultur  
mugimendua osoki,  
kanpaina horren bultza-  
zale ziren Seaska, UEU,  
AEK eta Pizkundera»**

erakaskuntza elebidunik gabekoa.

*Berriki bilkura bat iragan da publikoko ama eskolan haurrak ezarriak dituzten edo ezartzera doatzin burrasoen artean. Gehiengoak erabaki du euskararik ez zadien erakatsia izan. Gainera, jakin dugunaz, orotan makurrenak hemengo bereko burraso zenbait izan omen dira.*

*Matematika edo bertze edozoin ikasgairi ezin da erran «EZ», salbu euskarari, nunbaitik ere.*

*Bainan kasu Tupintegiko Roxaliri, ez dakion gerta, haurrek begiak idekiko dituztenean, berari erreproxatzea ordu zeno Baigorriaren hizkuntza ez erakatsia ukana. Zer da ondoko urrikia baino gaixtoagorik?*


*-Azkenik hau, ez Baigorri gertatua, bainan Baigorriar bati, uztailearen 14ean, Hissarrin, Emile Larre, erretorrarekin afaiten ari nintzan, herritarra dut, euskaltzaina, bertsularia, Herria astekariaren zuzendaria. Garazizat apezpikuak izendatua, herritik joan gabe gazteeri gutun bat igorri deie, kontseilu on zonbaiten emaitako. Jatetxeko etxekandereari artetik galdegiten dio: «-Ta zure haurrek eskuratu dutea ene letra? -Ba, jauna, bainan hitz bat bazuten konprenitzen ez zutena, funtsean, nihaurek ez nuen konprenitzen -Zoin? -...Nortasuna, edo halakozerbait...».*

Badela lan, bai Euskal Kultur Erakundearentzat, bai Euskal Konfederazioarentzat, bai denentzat! Beraz, luzaz eta aitzina doala euskararen aldeko mugimendusoziala!

Milesker entzule ixil eta artatsuak izan baitzarete. Ikus arte

1. ERANSKINA

**Boterearen bideak Frantzian**



## 2. ERANSKINA

### **1951ko urtarrilaren 11ko DEIXONNE LEGEA, 51.46 zk. HIZKUNTZEN ETA LEKUKO DIALEKTOEN IRAKASKUNTZA**

Lehen artikulua.- Hezkuntza Nazionalako Kontseilu Gorenari dagokio, lege honen baitan eta aldarrikapen dataz geroztik, hizkuntzen eta lekuko dialektoen ikasketa ahalbideratzea berauek erabiltzen diren herrialdeetan.

2. artikulua.- Argibide zehatzak helaraziko zaizkie errektoreei, lehen mailako eskoletako eta haurreskoletako irakasleei lekuko hizkuntzen erabilpena baimentzeko, batik bat frantsesaren ikasketarako eta, beti ere, hezkuntzarako mesedegarri suertatzen denean.

3. artikulua.- Eskaera egingo duen irakasleak astero ordu bete eskaini dezake lekuko hizkuntzaren irakurketa eta idazkera oinarriak irakasteko eta dagokion literaturatik aukeratutako zatiak aztertzeko ariketei. Ikasketa hau aukerapekoa izango da ikaslearentzat.

4. artikulua.- Ikasleei beren herrialdeko kultur eta folklore ondareak ezagutaraz diezaieketen liburuak aukeratzeko ahalmena emango zaie irakasleei, hauen akademiako errektoreak urtero osatutako zerrendaren arabera eskolako liburutegian eskuragarri egongo direlarik.

5. artikulua.- Magisteritza eskoletan, ahal den heinean, aukerapeko ikastaroak antolatuko dira prestakuntzak irauten duen bitartean lekuko hizkuntzaren kemena nabari den herrialdeetan irakastera doazen maisu-ikasleentzat. Ikastaro hauetan, hizkuntzan ez ezik, folklorean, literaturan eta lekuko arte herritarretan ere trebatuko dira.

6. artikulua.- Lizeoetan eta ikastetxeetan, lekuko hizkuntzen eta dialektoen zein folklorearen, literaturaren eta arte herritarren aukerapeko irakaskuntza ekimen zuzenduen baitan kokatu ahal izango da.

7. artikulua.- Fakultateko eta unibertsitateko Kontseiluen iritzia entzun ondoren eta Hezkuntza Nazionalaren Kontseilu Gorenak proposaturik, ahalmen ekonomikoek bideratzen badute, herrialdeko ikasketa institutuak sor daitezke. Lekuko hizkuntzaren eta literaturaren nahiz etnografia folklorikoaren irakaskuntzarako ikastaro bereziak burutzea izango da, batez ere, institutu hauen zeregina.

8. artikulua.- Ikasketa hauek burutu dituzten ikasleen lana lizentziatura agiri berrien, goi mailako ikasketa diplomen eta doktoratu tesien bitartez egiaztatuko da.

9.- artikulua (1970eko uztailaren 10eko 70-650 dekretuak egokitua).- Epaimahaiari aztertzaile aditua egoteko aukerarik dagoen unibertsitateetan, batxilergo programari aukerapeko frog bat gehituko zaio.

10. artikulua.- Lege honek 2. artikulutik 10.era bitarte dioena aldarrikapenaren ondorengo ikasturtean jarriko da indarrean bretoiara, euskara, katalanera eta okzitaniara erabiltzen den eskualdeetan.

11. artikulua.- 7. eta 8. artikuluek ondoren adierazten diren gauzapek hauek izango dituzte nagusiki:

a) Rennesen keltar ikasketa institutu batek keltar hizkuntzaz eta literaturaz eta etnografia folklorikoaz formakuntza antolatuko du.

b) Bordeleko unibertsitatean eta Bordeleko iberiar ikasketa Institutuan euskara eta euskal literaturaz formakuntza antolatuko da.

c) Montpelliereko eta Tolosako unibertsitateetan, Pariseko ikasketa hispanikoen Institutuan eta Bordeleko iberiar ikasketa Institutuan, hizkuntza eta literatura katalanaren formakuntza antolatuko da.

d) Aix-en-Provence, Montpellier eta Tolosako unibertsitateetan hizkuntz, literatura eta historia okzitaniarraz formakuntza antolatuko da.

### 3. ERANSKINA

#### **Euskararen Agiria**

##### AintzinSolasa

Euskara da Euskal Herriko jatorrizko hizkuntza. Beraz, Iparraldean ere hizkuntza ofiziala izan behar du euskarak, legeak honela onartuz eta administrazioak horretarako behar diren neurri guztiak hartuz.

Horixe da nazioarteko itunek galdatzen dutena eta horixe mintzaira anitz duten Estatu demokratiko gehienek daramaten politika. Tenorea da Frantziak ere gauza dezan euskararen onartze eta legeztatze ofiziala.

Euskararen egoera kontradizioz beterik agertzen zaigu. Euskal Herriko hizkuntzak ez du sekulan hainbeste baliabiderik izan bere historian: eskolak, komunikabideak, legeak eta beste. Halaber, hizkuntzaren aldeko atxikimendua ez da sekulan hain azkarra izan jendeengan, inkesta anitzek agertzen duten bezala.

Alta, hizkuntzaren egoera lazgarria da, ezagutza eta erabilpena maila biziki apalera jautsi baitira.

Euskarak, egoera gutitutik normalkuntzari buruz abiatzeko, hizkuntzaren eremu osoa estaliko duen politika behar du. Herri hizkuntzen Eurokarta da politika honen abiapundua eta ofizialtasuna helburua. Horren gauzatzeko legeak, erakundeak eta borondateak oraindik eskas dira.

Anartean, euskararen salbatzeko baitezpadakoak diren neurriak berehala hartu behar ditugu eta gauzatu denborarik galdu gabe. Minimo hori da agertzen agiri honetan, hainbat euskaltzale eta elkartek prestatuak.